

4. SAIOA

BEHATOKIEN ARTEKO SAREKO LANA

Luca Dal Pozzolo

Hitzaurrea

Behatokiak eta kulturaren arloko ikerketa-zentroek oso zeregin desberdina dute. Behatokiak bi arlo hauek lantzen dituzte batik bat:

- 1) Kulturaren arloko ezagutza-sistema, kulturaren ikuspegi globala eraikitzea.
- 2) Bitartekaritza-lana, kultura-politikei eta lurralde-politikei buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan ezagutza eta ikuspegi horiek erabilgarriak izan daitezen eta martxan jar daitezen.

Lehenengo gaiari dagokionez, gogoratu behar da behatokiak lan nagusia datuak — kulturari buruzko informazioa— landu eta datu horiei zentzua ematea dela, kritikotasunak, indarguneak edo esku hartzeko beharrak agerian uzteko. Hala eta guztiz ere, askotan behatokiak ez dituzte oinarritzko datuak, informazio garrantzitsuenak eskura izaten. Ondorioz, oinarritzko azterketak eta datuak "eraikitzeko" lan neketsu eta handiak egin behar izaten dira (Italian behintzat hala gertatzen da). Gainera, lan horiek egunero bete beharreko prozedura fidagarria eskatzen dute, eta horrek denbora asko eskatzen duenez, tarte gutxi geratzen da datuak lantzeko eta interpretatzeko. Horra paradoxa: oinarritzko datuak eta estatistikak lehen ezinbestekoak ziren, eta orain jakintzat ematen dira —eskura daudenean— eta eskariak interpretazio kualitatiboaren arlora pasatzen dira.

Eta guztia are konplexuagoa bihurtzen da, teknologia berriak eta kontsumoaren aldaketek, berriz ere, zalantzan jartzen baitute kultura-jarduerei, kontsumoari eta kultura-ekoizpeni buruzko ikuspegi baikor txikiak ere (tresna estatistiko tradizionalak guztiz desegokiak dira kontsumoaren dinamika eta esanahia ulertzeko).

Bigarren gaiari dagokionez, ordea, behatokiak beharrezkoak dira bitartekaritza lana egiteko, eta kultura-politikei buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan ezagutzak barneratzeko. Horrek ez du esan nahi aginduak ematen dituztenik. Behatokiak lan hauek egitea eskatzen zaie: aurrez egin beharrezko hausnarketa "neutralak" egitea (funtzionarioek eta politikoei horretarako denborarik ez dutelako), agertoki posibleak proposatzea eta inpaktuak eta aukera bakoitzak izan ditzakeen ondorioak simulatzea. Oso lan delikatuak da, eta aukera bakoitza aplikatzen den lurraldea eta tokiko gobernuen funtzionamendua oso ondo ezagutzea eskatzen du. Ondorioz, behatokiak oso ondo egokitu behar dute egoera berezi bakoitzera, eta horrek are behar handiagoa sortzen du beste errealitate batzuekin sarean konparatu ahal izateko.

Italiako egoera eta gaur egungo esperientziak

Gaur egun, Italian lau behatoki daude martxan. Hala eta guztiz ere, instantzia federalistek eta estatu zentralaren eta eskualdeen arteko botere-negoiazioek behatokiak berreskuratu beharra eskatzen dute. SIAE egileen eta argitaratzaileen eskubideak kudeatzeko sozietateak egindako estatistikak etetea, ikuskizunen sektore pribatuak ez ditu eskura gastuei, kontsumoari eta ikuskizunei buruzko oinarritzko datuak. Hala, SIAEk gaur egun dituen datuak frogagarriak ez izateaz gain, ez dute inolako erabilgarritasunik estatuaren eta eskualdeen arteko eskuduntzei buruzko negoziatioetarako, ezta programazio-eredu berri bat bultzatzeko ere.

Hori dela eta, Italiako eskualde bakoitzak ikuskizunei buruzko behatoki bat (lehenengo fasean) izateko metodologia bat eta ildo nagusiak lantzeko eskatu diote eskualdeek Fitzcarraldo Fundazioari (Piemonteko kultura-behatokia kudeatzen du), ATER Fundazioari (Emilia Romagna ikuskizunen behatokia kudeatzen du) eta ECCOM-i (ikuskizun nazionalen behatokiaren aholkularia izan da urte askotan), eta horiei ere behatokiaren sorkuntzan parte hartzeko eskatu diete.

Metodologia horren arabera, eskualdeek ikuskizunen arloko erakunde, elkarte eta eragileekin dituzten harremanak berregituratu behar dira, hala, administrazio-prozedurak eta datu, informazio eta balorazioen trukeak oinarri konparagarrien bidez birformulatu ahal izateko.

Helburua ez da ikuspegi nazionala ematea, baizik eta eskualde arteko "puzlea" osatzea, datu eta adierazle multzo jakin baten aurrean konparazio zehatzak egin ahal izateko eta, aldi berean, eskualde bakoitzak bere beharren arabera eta askatasunez jokatzeko, prozedurak martxan jarri behar direnean eta informazioa lortu behar denean. Beraz, datuei eta ildo nagusiei buruzko konbergentzia-prozesuak bakarrik zehazten dira, eta eskualdeek autonomia osoa dute behatokia ikuskizunei buruzkoa bakarrik izango den edo, oro har, kulturari buruzkoa izango den erabakitzeko eta behatokiaren forma instituzionala erabakitzeko (eskualde barruko organoa, unibertsitatearekin hitzarmena, aholkularitza-elkartea...).

Kultura-behatokiek sarean lan egiteko dituzten mugak, ahalmenak eta aukera errealak

Sarean lan egitea beharrezkoa da datuei, adierazleei eta tokiko balorazioei zentzua emateko. Hala ere, kontuan izan behar da beti behatokiak tokiko gizartearen beharretara egokitu behar duela. Beraz, lan-prozesuak ez dira baliokideak, eta ez da egokia datuak zuzenean eta automatikoki konparatzea.

Konparazio horiek egitea ezinezkoa bada Italia bezalako estatu bateko eskualdeen artean, are eta zailagoa da nazioartean. Izan ere, estatu bakoitzeko tradizio estatistiko eta administratiboek kultura-prozedura eta -paradigma oso desberdinak finkatu dituzte (LEGen eta Eurostaten lanek erakutsi duten bezala).

Beraz, zein da egoera?

Herrialde guztien arteko desberdintasunak zehaztuko dituen lan bat egitea dut buruan. Lan horretan, datuen esanahia landuko da, oharrak egingo dira datuak azaltzeko, bilketarako metodologiak zehaztuko dira, datuak disgregazio-maila handiagoarekin landuko dira, konparaketarako elementu zehatzak bilatzeko, eta desberdintasunen sistemaren balorazio bateratua egingo da, kasu horietan, gainditu beharreko erronka izaten baita. Baina, horretarako, beharrezkoa da agenda bat eta nazioartean lan egiteko aukera izatea, gaurko topaketa honek eskaintzen diguna, adibidez.

Eztabaidarako zenbait gai

1. Adierazleak eta konparazioetarako daukaten garrantzia: Quebeceko esperientzia, DEPekea...
2. Azkar aldatzen ari den gure mundua behatzeko zailtasunak: kontsumo-globalizazioaren fenomenoek nazioaz haraindiko metodologia erkideak erabiltzeko baldintzak ezartzen dituzte?
3. Datuak ez ezik, lurralde osoak konparatu beharra daukate behatokiek, kulturarekiko harreman konplexu horretan.